



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2008-11-26**

VIURTEA 1.569 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Emakumeenganako indarkeriaren aurka oihukatu dute eskualdean

**TOLOSALDEA** Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi egin zituzten Irura, Villabona, Tolosa eta Anoetan

**ALDARRIKAPENAK** Guztiek ere ez esan zioten indarkeriari eta «berdintasuna lantzea beharrezkoa» dela esan zuten 3



## Eskualdeko paleta jokalariai txapeldun Munduko Kopan

**TOLOSALDEA** Maider Mendizabal eta Nagore Arozenak 30-21eko emaitzaz irabazi zuten 5



Valeria Zampino, Miren Ceberio, Rita Calderon eta Mayi Castillo. E. EZEIZA



Anoetan, «tratu onen» murala egin zuten DBH 4ko ikasleek; Iruran, berriz, elkarretaratzea egin zuten. I. GARCIA

## Ereitek euskararen beharraz sentsibilizatu nahi ditu etorkinak

**TOLOSA** Elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu Abenduaren 3rako, Euskararen Egunaren harira 2

# Euskararen beharraz sentsibilizatu nahi ditu etorkinak Ereite elkarteak

**Gizartea** » Euskararen Nazioarteko Eguna da abenduaren 3a; hau ospatzeko hainbat ekintza antolatatu dituzte.

## ESTI EZEIZA

Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna da. Hori dela eta, Ereite elkarte kulturantzak bere ekarpena egin nahi du, hainbat ekitaldi antolatuz. Iaz ospatu zuten lehendabiziko aldiz, eta jasotako erantzun onaren ostean, aurten errepikatzea erabaki dute.

Ekimen honekin, etorkinak euskararen beharraz ohartzea nahi dute. Izan ere, Ereiteko kideen esanetan, «askotan zaila da guretzat, etorkinei esatea, zergatik ikasi behar duten euskaraz hitz egiten. Honekin, pausoa ematera gonbidatu nahi ditugu». Baina egitasmoak bi zentzuetan eragin nahi du. Hau da, etorkinengan, baina baita izatez, hemengoak direnengan. Erakutsi nahi dute, etorkinek ere ahaleginak egiten dituztela hartu dituzten herrialdean integratzeko. Hori dela eta, Ereite elkarte ordezkariek interesa duen orori luzatzen dio deia, ekitaldietan parte hartzeko, etorkina izan ala ez.

Euskararen Egunaren harira antolatutako ekintzak *Murgilduz* proiektuaren baitan daude. Urtean zehar, euskara eskolak, ludoteka, irteerak... egin dituzte, euskal kulturaz gehiago ikasteko.

## Hiru egunetan, ekitaldiak

Etorkinei nahiz izatez eskualdekoei zuzenduta, hainbat jarduerak prestatu dituzte datozten egunetarako. Zer egin erabakitzeko garaian, iazko ildotik jarraitu dute, eta adin ezberdinetako jendearentzat proposak diren ekitaldiak aukeratu dituzte. Denetan ere, kulturartekotasuna dute ardatz eta oinarri.

Lehen ekitaldia etzi izango da. Bilboko Vuelta Bonita Corporationek *Babel Mundua* aurkeztuko du. Lan honek kulturantzatasuna bultzatu nahi du. Mundu berezia ikus daiteke bertan; kultura bakoitzak bere garrantzia du eta kultura guztiak errespetatzen dira. Pandora izeneko neskatila da antzezlaneko protagonista. Pandora uharte batean bizi da bere laguna den saia batekin. Uharteko jabea Jenny buruzagi anderea da eta ez die bertatik ateratzen uzten.

Bikoteak, hala ere, azkenean alde egitea lortzen du eta munduan zehar ibiltzera joaten dira osaba Mattek bidalitako gutunek bultzaturik. Bisitatzen duten herrialde bakoitzean hitz magiko bat bilduko dute. Hitz horiek oso baliagarriak izango zaizkie bidaiaren bukaeran. Antzezlanaren berez eus-



Euskararen Egunerako antolatutako ekitaldiak aurkeztu dituzte Ereite elkarte kideek. ESTI EZEIZA



## Euskal Herriko txokoak ezagutzuz

**KULTURA** » *Murgilduz* proiektuaren baitan, hainbat ekintza ari dira gauzatzen Ereite Elkarte Kulturantzakoak. Joan den asteburuan Ekain haizuloaren erreplika ikustera, hau da, Ekainberrira joan ziren. Hau Zes-

toan aurkitzen da. Hau bezalako txangoekin, etorkinek euskal kultura eta inguruak gertuagotik ezagutzera nahi dute. Aldi berean, familia giroa nagusitzen delarik. HITZA

karaz idatzita dago, nahiz eta tartean arabiera, errumaniera eta beste hainbat hizkuntza ere entzuten diren.

Ekitaldia ezagutzera emateko, 1.700 gonbidapen banatu dituzte Tolosako eta Ibarako lau ikastetxetako haurren artean.

Abenduaren 3an, Euskararen Egunean bertan, Idoia Santxez ipuin kontalariak kulturartekotasunaren ikuspegia landuko du. Saioa amaitu eta gero, hainbat liburu zozketatuko dituzte han dauden artean.

## Euskararen Egunaren jatorria

Eusko Ikaskuntzaren sorrerarekin lotu behar da ospakizun hau. 1918ko irailean egin zuten lehen kongresua eta, bertan, erakundearen helburuak zehaztu zituzten.

1949ko abenduaren 3an ospatu zen, jada, Euskararen Eguna Iparraldean eta Ameriketako hainbat lekutan. Baina frankismoa puri-puri zegoen garai hura ez zen euskararentzat oso erosoa.

Eusko Ikaskuntzaren ekimena bertan behera geratu zen Espainiako Gerra Zibilaren eta gerra os-

tearen ondorioz. Iparraldean, Joxe Miel Barandiaran saiatu zen erakunde bizirik mantentzen eta Nazioarteko Eusko Ikaskuntza bultzatu zuen. Era berean, Euskararen Eguna izendatu zen 1949ko abenduaren 3rako eta horrelaxe jarraitu du ospakizunak egutegian, Euskal Herrian ezezik, Parisen, Mexikon, Caracasen, New Yorken eta bestetan ere ospatzen delarik.

## » EGITARAUA

### Azaroak 28, etzi

■ **Antzerkia.** Vulea Bonita Corporationek *Babel Mundua* lana aurkeztuko du. Emanaldia 18:00etan hasiko da. Leidor antzokian izango da, eta sarrera doakoa da.

### Abenduak 3, asteazkena

■ **Ipuin kontalaria.** Idoia Santxez izango da Errota Haur Liburutegian. Emanaldia 18:00etan hasiko da, eta dohainik izango da sarrera.

### Abenduak 5, ostirala

■ **Hitzaldi-egtabaia.** Dilema linguistikoa eta zentzuzko larritasun

1995ean, Kanpoko Gizataldeen Lehen Mundu Biltzarrean, Uru-guaiko ordezkariak egunaren berrindartzeko proposamena egin zuten eta euskaldunek egun handitzak zutena Euskararen Egun ofizial izendatzea eskatu zuten. Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak ontzat eman zuten proposamena eta abenduaren 3a, Euskararen Eguna izendatzea erabaki zuten.

nak izenburupean, mintzatuko da Xabier Aierdi, Ikuspegi koordinatzailea. Kike Amonarizek berri, *Zergatik eta zertarako emigratu euskarara? Zergatik da garrantzitsua euskara?* galderak erantzuteko saiatuko da. Ondoren, galderak egiteko aukera izango da. Hitzaldi-egtabaia 18:30ean hasiko da, eta Errota Haur Liburutegian izango da.

■ **Afaria.** Uzturre sagardotegian afaria izango da 21:00etan. Txarrelak Iratxo tabernan edo Triangulo eta Alliri kafetegietan eros daitezke.

## Foru Aldundiak Asuncionera zuzeneko sarbidea egitea onartu du

### ERREDAKZIOA

Foru Aldundiak N-I errepidetik Izaskun auzora joateko sarbide berri bat eraikitzeari ekingo dio. Sarbide berriaren bitartez, N-I eta Izaskun auzora doan GI-3421 errepidea lotuko dira. Horren bidez, Asuncion Klinikara joan nahi duten Tolosaldeko erabiltzaileek N-I errepidetik zuzeneko sarbide bat izango dute, Tolosako Alde Zaharra zeharkatu beharrik gabe.

Diputatuen Kontseiluak N-I errepidetik Izaskun auzorako sarbide berria eraikitzeke lanen lizitazioa onartu du. Obrek 2,3 milioi euroko aurrekontua eta 8 hilabete epea izango dute. Hasi, Tolosa iparraldeko lotunean, errepidearen azpiko pasabidearen ondoan hasiko da, eta Asuncion Klinikara baino goraxeago amaitu, Izaskun auzora doan GI-3421 errepidearekin elkartuz. Santa Luzia auzoan dagoen N-I errepidearen lotunea egokitu eta eraberrituko da.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Iruia.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosaldeko bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltegia:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

**Gizartea »**

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, aldarrikapenak izan dira eskualdean.

**ERREDAKZIOA**

Gaur bezalako egunetan datuz josten dituzte komunikabideetako titularrak. Askotan horretan gertzen dira, datuetan. Datu hutsetan. Baina, Emakumeenganako Indarkeriarekin aurkako Nazioarteko Egunean plazaratzen dituzten datuak benetan beldurgarriak dira, zenbaki bakoitzaren atzetik sufrimendua baitago. Zenbat emakume erailda, zenbat mehatxupean, zenbat erasotutak, zenbat salaketa,.... Guztia emakume izateagatik, eredu patriarkal batean, XXI. mendean.

Asko dira landu beharreko arloak, oraindik horren aurkako eguna antolatu behar badu nazioartek. Atzokoan izan zen, hain zuzen, egun hau, ozenki genero indarkeriaren aurka oihukatzeko eguna.

Eskualdeko hainbat eragilek eta norbanakok ere bat egin nahi izan zuten aldarrikapen ekitaldi hauekin eta ekitaldi ugari egin zituzten.

**Iruran eta Anoetan**

Iruran, udaletxe parean herritar talde bat «emakumeen aurkako indarkeriari ez» esanez bildu ziren. 30 lagun inguru izan ziren elkarreteratzean, tartean Udaleko ordezkariak. Irakurritako idatzian, besteak beste, «berdintasuna lantzea behar beharrezkoa»

# Emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko oihuak ozen entzun dira gurean



Villabona elkarretaratzea egin zuten lehenik; ondoren, pankarta batzuk atera eta jendeak osatutako bidexka osatu zuten, «jendea animatzeko». I. GARCIA



dela azaldu zuten eta indarkeria mota hori emakumeen arazoa bakarrik ez dela, «emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazgarri argiena» baizik, «gizonen kultura patriarkal baten ondorioa».

Anoetan, berriz, ikastolako DBHko ikasleek hartu zuten parte eguneko ekitaldietan. Hain zuzen ere, mural bat osatu zuten, «tratu onen inguruko». Mural honetan, lau egoera txar irudikatu zituzten;

hauen azpian egoera horri konponbidea topatu zioten. Hala, egoera txarra muraletik aldentuz gero konponbidea agertzen zen.

Halaber, genero indarkeriaren aurkako leloen lehiaketan bilduriko lan guztien erakusketa jarri zuten kiroldegian. Gaur udal eta ikastolako ordezkariak joango dira irabazlea zein den erabakitzeko.

Ondoren, Udalak patrikako egutegiak kaleratuko ditu eta lelo irabazlea azalduko da bertan.

**Villabonan sorpresa**

Tolosan, elkarretaratzea egin zuten atzokoan Bilgune Feministak deituta. Jende ugari «nazkatuak gaude, emakumeok autodefentsan» aldarrikatu zuten. Lurrean emakumezko baten silueta irudikatzen zuten, eta kandlez inguratzen zuten. Halaber, Kultur Etxeko balazlea zein den erabakitzeko, hildako emakumeak irudikatuz.

Villabonan berriz, Hutsuneak Betez elkarretaren eta Udalaren

ekimenez, elkarretaratzea egin zuten Berdura plazan. Ondoren, *Ondo sentitu nahi baduzu pasa hemendik* jartzen zuten bi pankarta jarri zituzten. Pankarten atzean jendeak bidexka bat osatu zuten. Jendeak bertatik pasa eta animatu egiten zieten, euren berotasuna emanez. Jendea animatzeko helburuz egin zuten ekimena. Gero bihotz itxurako piruleta eta pastak banatu zituzten. Jendeak oso gustura hartu zuen ekintza hau.



Anoetan genero indarkeriaren aurkako leloen lehiaketa egin zuten. I. GARCIA



Tolosan Bilgune Feministaren deialdiarekin bat egin zuten askok. I. GARCIA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Eguraldi txarra izan arren parte-hartzaile ugari izan ziren Mendiathlonian. HITZA

## Jon Erguin eta Aitziber Ibarbia izan dira lehenengoak

**Amasa** » San Martin jaien azken ekitaldia XVI. Mendiathlonia izan zen; 70 parte-hartzaile aritu ziren korrikari eta bizikletan.

### ERREDAKZIOA

Adunako San Martin jaia amaitu ziren pasatu berri den igandean eta azkenetako ekitaldia XVI. Mendiathlonia izan zen. Jon Erguin beasaingarra eta Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan ziren lehenengoak. Guztira 68 gizonetako eta 2 emakumezkoak parte hartu zuten. Antolatzaileen esanetan, ez zuten espero hainbestek parte hartzea: «Urteroko parte-hartzaile kopurua izan dugu, baina ikusita igan-

dean zegoen eguraldi txarra, egia esan harritu egin ginen hainbeste etorri zirenean».

Proba burutzeko Jon Erguinek 1:00:21 egin zuen. Korrikako zatia nahiz bizikletan dena aurrean egin zuen Erguinek. Bigarrena Aitor Regillaga tolosarra izan zen 1:01:50 eginez eta hirugarren Jon Aperribai arrasatearra 1:01:58 denborarekin. Amasarren artean lehenengo Ugaitz Artola izan zen (orokorrean laugarrena) 1:02:39 denborarekin eta bigarrena Eneko Gurrutxaga izan zen (orokorrean seigarrena) 1:05:15 denborarekin.

Emakumezkoetan Aitziber Ibarbia 1:29:12 denbora egin zuen eta bigarrena Ainhoa Mendia billabonatarra izan zen 1:42:52 denbora eginez.



## Anoetako atxiloketak salatu dituzte

**POLITIKA** » Larunbatean Amasako festetan, Anoetan egun horretan bertan gertatu ziren atxiloketak salatzen ekimen bat egin zuten. Bide batez ere, Irati Mujika eta beste biren espeteratzea eta torturak ere salatu zituzten. Atxiloketan Segi gazte erakundeko militante izatea leporatu diete. «Argi dugu EAJ eta bere zipaioek euskal gazteria kriminalizatzeko hautua egin dutela: antolakuntzan eta borrokan jarraitu behar dugu». HITZA



Ama Dablam mendia igo zuten Unai Zendoia billabonatarra eta Oskar Porras usurbildarra. HITZA

## Herrikoen espedizioa eta Gazumeko parke eolikoa hizpide mendi asteetan

**Mendia** » Villabonako Aizkardi elkartearen eta Asteasuko Sagain taldearen mendi asteak martxan daude egunotan.

### IMANOL GARCIA

Villabonako Aizkardi eta Asteasuko Sagain elkarteek mendi asteak antolatu dituzte aste honetarako. Gaurkoan, Villabonako Unai Zen-

doia billabonatarra eta Oskar Porras usurbildarra Himalayara egindako espedizioaren berri emango dute. Asteasuko Gazume mendian egitekoa den parke eolikoa inguruko mahai-ingurua antolatu dute.

Unai Zendoia eta Oskar Porras beste hiru mendizalarekin espedizioa egin zuten iazko urrian Himalayara. Bi mendi igo zituzten: Ama Dablam (6.856 metro) eta Imja-tse (6.189 metro). Azken hau Zendoia eta Porras bakarrik igo zuten. Lehenengo aldian Zen-doiarentzat Himalayara joaten zela eta billabonatarra dienez, «mendia gustuko duenarentzat ikaragarria da hura. Mendia asko gustatzen zaionarentzat, paradisu da».

Igo zituzten mendi horietara iristeko, Everestera joateko egin behar den trekking berdina egin behar da. «Alpeetan eta Andean izan gara, baina salto handia dago Himalayan aurkitzen dituzun mendiekin. Sekulako dimentsioak dituzte hango mendiek eta aurretik ikusi gabeko garaierak daude».

Espedizioan bilbotar batekin eta Almeriako (Espainia) beste bi mendizaleekin joan ziren. Bilbotarrek prestatu zuten espedizioa eta azken unean elkartu ziren Zendoia eta Porras. Hain justu, Almeriako mendizale batek ezin izan zuen Ama Dablam igo biriketa edema izan zuelako eta helikopteroz eraman behar izan zuten Katmandura.

Emanaldia 20:00etan izango da, Gurea aretoan. Bertan, Zendoiak eta Porras sarrera bat egingo dute eta gero espedizioa argazkiak erakutsiko dituzte, hauek komentatuz.

### Mahai-ingurua

Gazume mendian egiteko asmoa duten parke eolikoari buruz ariko dira gaur Asteasuko Mendi Astean. 20:00etan hasiko da emanaldia eta udalatzeko zine aretoan egingo dute. Mahai-ingurura gobidatuta daude, Asteasuko Udala, Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat, Greppeace talde ekologista, Ekologistak Martxan talde ekologista eta Seo-Bird Life taldea.

## Erosi berriak

Zuretzat edo nahi duzunari oparitzeko!

**SOLAGÜEN 2004.** urteko ardo **ONDUA**

12 botilako kutxa  
**72€**

**REMELLURI 2004.** urteko **ERRESERBA**ko ardo

3 botilako kutxa  
**40€**  
6 botilako kutxa  
**80€**

**Gorrotxategi PRODUKTUAK**

Lotea **29€**

Tolosako Xaxxak  
Txakolin txakolotea  
Jagurt turria musuta goriarekin  
Aktikoa eta merkixa turria

Mandarina turria bolur zuriarekin  
Txakolate turria almendrek  
Merkixa turria txakolotarekin  
Jagurt turria musuta goriarekin

Turroi askotarikoak  
**19,50€**

*Alfar*

OLIBA OLIO SIRJINA EXTRA

6 botilako kutxa 75 cl  
**36€**

*Eskatu orain, eta zuzenean eramango dizugu nahi duzun lekura:*  
*Zure etxera - Oparitu nahi duzun lagunarekin etxera edo lantokira.*

**Eskaera epea:**  
**azaroaren 30a arte**

**Eskaerak egiteko:**  
**943-30 43 45**  
Bidalketa gasturik gabe

## Orexako Udala

IRAGARRIA

Orexako Udalak, 2008ko azaroaren 10an egindako bilkura nagusian, Orexako herriko tabernaren ustiapena esleitzeko lehiaketa arautuko duen baldintza ekonomiko-administratibo berezien plegua onartu zuen.

Hori dela eta, Orexako herriko tabernaren ustiapena esleitzeko lehiaketa parte hartzeko norbait interesatua egonez gero, Baldintza Pleguak diotena beteaz, bere izena Orexako Udalarekin eman behar du, ABENDUAREN 23 bitartean. Udalteko lan-ordutegia hau da: Astearte eta Ostegunetan, 9:30tatik 14ak bitarte. Telefonoa: 943 682 029.

**Orexan, 2008ko azaroaren 25ean.**

**ALKATEAK**  
Sin: Unai Eliola Atxega

# Eskualdeko paleta jokalariek Munduko Kopako txapeldun

**Paleta** » 30-21 izan da Maider Mendizabalen eta Nagore Arozenaren emaitza, Kuban izan den gomazko paleta lehiaketan.



Podiumean lehenengo postuan, paleta jokalariek euskaldunak, domina eta guzti. Ezkerrean, frantziarrak. HITZA

## ERREDAKZIOA

Kuban Munduko Kopako Gomazko Paleta Txapelketa jokatu dute eta bertan, Maider Mendizabal eta Nagore Arozena bikotea txapelduna izan da. 30-21 irabazi zuten herenegungo partidaren, Frantziako selekzioko bikote gogor baten kontra. Finala «oso oso luzea izan zen», beroketaren ondoren partidaren aurkezpena egiten ari zirela argindarra joan baitzen eta ordu eta erdiko atzerapenaren ondoren berriz ere argia bueltatu ostean, hasi zen berriz.

Partida hasi ondoren Mendizabal eta Arozena (Su-Berriko pilotariak) 5 eta 2ko emaitzarekin irabazten zihoztela berriz ere argia joan zen. Berriz ere beroketa txikia egin eta martxan jarri zen partida. Tanto gutxi batzuen ondoren tanto bat jokatzeko ari zirela, foko bat lehertu egin zen eta berriz ere partida geratu behar izan zuten, kan-txagarbitzeko.

Hemendik aurrera partida ikusterako gerturatu ziren 300 lagun inguruk, joko ederra ikusteko aukera izan zuten. «Bi bikoteak oso seguru aritu ziren». Arozenak seguitan hartu zuen lekua eta Mendizabal, berriz «oso zentratua ibili zen», guztira bi tanto besterik

galdu ez zituelarik, eta 15 egin. Atzean «Nagore Maika baino askoz ere hobeto moldatu zen» eta lekua ondo hartu zuen, eta iparraldeko Amaia Etchelecuraren eraso guztiei «oso erantzun ona» eman zion.

## Jokalariek «poziko»

Ordubeteko iraupena izan zuten finalak: beti aurretik joan ziren markagailuan Su-Berrikoak eta frantsesak gehienez 3 tantora gerturatu ziren.

Azkenean «osozoziko» agertu ziren Mendizabal, Arozena, Itsaso Urkizu eta Maite Ruiz de Larramendi (azken bi hauek ordezkoko gisa egon ziren finalean). Su-Berriko pilotariak beraien joko mailarik

onena erakusteko parada izan zuten final honetan.

Bai paleta goma nesketan, baita xarean ere garaipenak lortu dituzte Espainiako selekzioarekin. Paleta goman, gainera, Maider Mendizabal anoetarrek (Su-Berri elkartekoak) eta Nagore Arozena lizantzarrak (Su-Berri) jokatu zuten partida.

## Xarekoek zilarra eskuratu dute

Xareko jokalariek berriz ezin izan zioten frantsesei aurre egin eta zilarrezko domina lortu zuten. Partida hau Ignacio Dufur eta Jose Larrera nafarrek jokatu zuten eta Andoni Lizaso eta David Vinuesa irurarrak, berriz, ordezkoko gisa egon ziren.

## Bihar iluntzeko Amezketako bilkuran, 2009. urteko aurrekontuez

### ERREDAKZIOA

Bihar 20:30ean Amezketako udal-letxean ohiko bilkura izango da eta bertan, besteak beste, datorren urterako udal aurrekontuak onartuko dira.

Bestelako gaiak ere jorratuko dituzte. Esaterako, Jauregiko Eremuko hirigintza hitzarmena behin betiko onartuko dute eta arau berri zuzenak onartuko dituzte. Batzordearen informazioa ere ezagutzera eman gogor dute eta galdera eta proposamenetarako tartea ere izango da.

## Euskal Herria Sozialista aldizkariak bertan behera utzi du hitzaldia

### ERREDAKZIOA

Gaur, Euskal Herria Sozialista aldizkari partaideek Anoetan hitzaldi bat eman behar zuten, baina bertan behera uztea erabaki dute. Asteburuan Anoetan izan diren hiru atxiloten harira, elkarretaratzera dago 19:00etan eta aldizkariok, honen ondorioz eta hala nahi izanik, elkarretaratzeari buruz ezin izan dute.

Honekin batera, jendea elkarretaratzera joateko deialdia luzatu dute Euskal Herria Sozialista aldizkariok.

# «Kontzertua bai jendez, bai eskaintzaz arrakastatsua izan da»

### N. URBIZU

Ikaztegiako Udazken Kulturaren baitango ekitaldiak izan dira asteburu honetan, eta «oso arrakastatsua izan dira, batez ere, ostiraleko *Ikaztegieta Kantuz kontzertua*». Eneritz Maiz alkatearen esanetan, 100 lagundik gora elkar-tutuz, eta Clara Urteaga herritarra, Irati Sorondoren eta Garazi Eguirene ere «oso ongi aritu ziren». Garazi Esnaolaren laguntza ere izan zuten eta pianoa, gitarra eta trikixita erabili zituzten lagun-tzeko.

Musutruk joan zirena saioa egite-

ra eta borondatea eskatu zuten gero antolatzaileek ikusleen artean. Jasotako guztia gazte hauentzat izan zen.

### Talo eta gaztain-jatea

Larunbatean iluntzean kiroldegian talo eta gaztain-jatea izan zituzten. Gaztetxoek ikasbaldiarako dirua ateratzeko postrea eta kafeak prestatu zituzten. «Hemen ere jendea bildu zen: gainera, herritar askok lagundu zuten honetan. Batzuk taloak erretzen, besteak banatzen, egiten... Auzolanean aritu ginen».

# Zine-forumarekin batera, Nerea Elias eta Olga Jimenez

### ERREDAKZIOA

Bihar Alegiako Udazkenean Kulturaren jardunaldien baitan, zine-foruma izango da eta *Flores de otro mundo* (Iciar Bollain) ikusi ahal izango da. Saioa 19:30ean hasiko da Kultur Etxean, eta ez 20:00etan. Immigrazioaren inguruan aritzea da asmoa. Filma ikusi aurretik, sarrera berezi bat egingo dute, gaia kokatzeko. Horretarako bi lagun gonbidatu dituzte: batetik, Nerea Elias aditua, Gizarte Hezkuntzan diplomatu eta Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatua, hain zuzen. Gaiaren nolabait kokapena egingo du.

Era berean, Olga Jimenez ere izango da. Alegiara bizitzera joan eta alegiar bihurtu den kolonbiarra da eta bere esperientzia kontatuko du, etorkina den horretan.

Sarreraren ondoren, filma ikusiko dute. Arrazakeriaren gaia tratatzen du, beste hainbat gaiekin batera: matxismoa, herri txikiak, bizimodua, bakardadea... Hiru gizon eta hiru emakume dira protagonista. Aktoreen artean euskaldun bat ere bada: Elena Irureta, hain zuzen ere.



# Beharrak, gune itxiak eta irekiak

**BALIARRAIN** » Markel Olano Gipuzkoako Ahalduen Nagusiak eta Rafa Uribarren Foru Aldundiko Landa Garapenerako diputatuak, haren aholkularia den Maite Peñacobarekin batera Baliarrainen izan ziren atzo. Martzelino Dorronsoro alkateak «oso positiboa» dela adierazi du, «herri txikiak behingoz hurbiletik ezagutzen dituztelako». Atzoko bilaren alde batetik gune irekiei buruz aritu ziren: «Lehentasuna plaza konpon-

tzeari ematen diogu, oinezkoak nahi dugu. Orain autoak erditik pasatzen dira» eta plazaren funtzioa galdutako egiten da. Bestetik, gune itxiak beharrak aurkeztu zituzten: «Udaletxearen azpian lursail ederra dugu eta udaletxearen lotuta, hainbat erabilpen izango lituzketen gelak egin nahi ditugu». Bi guneetarako auto aparkalekuak beharko lirateke, eta hori ere aurreikusita dute, lekua bai baitago honetarako ere. n.u.

# Baserriko produktuen azoka izango da larunbatean

**Belauntza** » Goizean Arriarango urtegia bisitatzeko aukera izango dute eta arratsaldean azoka izango da frontoian.

## ERREDAKZIOA

Belauntzako Udalak bi ekintza antolatu ditu larunbat honetarako. Batek Arriarango urtegia ezagutzeko aukera eskainiko du eta bestetik baserriko produktuen azoka egingo du. Arriarango urtegia bisitatzeko irteera goizean izango da.

Arratsaldean, ordea, baserriko produktuak izango dira protagonista. Izan ere, Udalak baserriko produktuen azoka moduko antolatua du 15:30etik aurrera herriko frontoian. Udalak ohar baten bidez jakinarazi duenez, «egun baserriaren egoera ez da oso baiko-

rra. Egunetik egunera gero eta baserri gutxiago gelditzen da eta baserri desagertzeko arriskua pixkanaka areagotuz doa; azken urteetan, gizarte osoaren joera, kanpotik ekarritako elikagaiak erostea izan da, tokiko espezieak eta nekazaritza alde batera utziz». Hau dela-eta antolatu dute baserriko produktuen egun berezia.

## Azoka, arratsaldean

Azoka herriko frontoian izango da 15:30etik aurrera eta bertan herri-tarrek euren baserriko produktuak salmentan jartzeko aukera izango dute eta baita bigarren eskuko materiala saltzeko aukera ere (tresna zaharrak, jantzi desberdinak...).

Ondoren, gainera, *Piano bat bertsoetan* bezala bataiatu duten herri afaria egongo da herriko tabernan 21:00etatik aurrera.



Arriarango urtegia bisitatzeko dute larunbat goizean. NEREA URBIZU

## Salgai dira jada kostilladan eta babarrun-jatean parte hartzeko txartelak

**Alegia** » Gaztetxearen urteurrena ospatzeko izango diren ekintzetatik bi aurreratu dituzte; bazkariak biak.

## ERREDAKZIOA

Urtero bezala abenduan zehar ospatuko dute Alegiako Gaztetxearen urteurrena. Oraindik ez dute zehaztu urteurrena ospatzeko izango diren ekintza guztiak, baina kostillada eta babarrun-jatean egunak zehaztu dituzte jada txartelak aurretik erosi ahal izateko.

## Abenduaren 5ean eta 13an

Horiek horrela, kostillada abenduaren 5ean izango da, Garagardo Azokaren baitan, eta txartelak 6 euro balio ditu. Babarrun-jatea, aldiz, abenduaren 13an izango da, AHTren aurkako egunean. Babarrun-jaterako txartelak 12 euro balio ditu; 10 euro bazkaria ordaintzeko bideratuko dituzte eta beste bi euroak Alegiako AHTren kontrako taldeari emango dizkiote.

## Ibartarrek galdu egin dute Sestaoren kontra

**Areto-futbola** » Etxean izan zuten partida, Belabietan, eta 1-4ko emaitzarekin galdu zuten Lauburu FS taldekoek.

## ERREDAKZIOA

Ez da denboraldi xamurra izaten ari Ibarako areto-futboleko taldearentzat. Ibarra Lauburu FS taldearekin partida asko galdu dituzte, azken astearen, asteburu honetan.

Bizkaiko Sestao taldearen aurkako partidangol bakar sartu zuten ibartarrek, Sestaokoek lau sartzeko aukera izan zuten bitartean. Zelaieratu ziren lehen Ibarako

bol jokalaririk Joseba Balerdi, Victor Silva, David Prados, Ion Ander Karrera eta Aitzol Oyarbide izan ziren. Unai Labacak, Ion Garmendiak eta Loitzun Sanzek ere jolasteko aukera izan zuten.

## Unai Labacaren gola

Ibarakoengol bakarra Unai Labacak sartu zuen lehen zatiko 12. minutuan, baina gerora ezinezkoa izan zitzaion markagailua euren alde jartzea. Bizkaiko taldearen defentsa azpimarratu behar da, zentzu honetan.

Bestalde, Ibarako jubenilen taldeak Goparren kontrako partida izan zuen Villabonan eta 0-4 irabazi zuen.

## Langostino Moto Elkarteak beste irteera bat antolatu dute

**Ibarra** » 09:30ean aterako dira igande honetan San Bartolome plazatik; urteko bederatzigarren irteera izango da.

## ERREDAKZIOA

Langostino Moto Kultur Elkarteak kideek beste irteera bat antolatu dute igande honetarako, hilak 30, urteko bederatzigarrena, hain zuzen. Betiko moduan irteera goizeko 09:30ean izango da San Barto-

lome plazatik. Ibilbideko lehen zatia hauxe izango da: Ibarra, Berastegi, Leitza, Ezkurra, Mendatea, Goizueta, Altasenege, Pagoaga, Ereñozu, Hernani, Martutene, Loiola eta Amara, hemen hamaitaketa egingo dute Txoper tabernan. Ondoren Ibararako bidea hartuko dute berriz ere honako ibilbidea eginaz: Hernani, Urnieta, Andoain, Villabona, Zizurkil, Alkiza, Anoeta eta Tolosa. Ibarara 13:30ean iritsiko dira. Elkarteak esan dutenez bira edozein motoretarako da egokia.

Hamaiketakoak 6 euro balio ditu eta antolatzaileek zenbat pertsona joango diren jakitea beharrezkoa dutela esan dute. Izena aldeztu aurretik eman ahal izateko [langostinomotofesta@gmail.com](mailto:langostinomotofesta@gmail.com) helbidera idazteko edota 630 784 213, 670 417 915, 636 403 170 telefono zenbakietara deituzko eskatu dute elkarteak kideek.

Bestalde, Langostino Motor Kultur Elkarteak kideak ETBleko Ito Landaluzek aurkeztutako mikologiaren inguruko saioan aterako dira igande honetan 21:30ean.

## Laburrak

### Eguesen urtebetetzea dela-eta argazkia igandean

**ELDUAIN** » Ana Belen Egues euskal preso elduaindarraren urtebetetzea iristear dagoenez igande honetan, hilak 30, herritar talde batek argazkia atera behar dutela iragarri nahi izan du. Hitzordua 12:30ean izango da Elduaingo Urdelak Biltokiaren atarian. Era berean, herritar, senide eta herritarrek ez diren lagun guztiak bertaratu eta argazkian ateratzea gonbidatzen dituzte.

### 'Bread and Roses' filma gaur Gaztetxean

**IBARRA** » Autoeskola Antikapitalista taldeak antolatutako *Bread and Roses* izeneko filma eskainiko dute gaur 21:00etan Ibarako Gaztetxean. Ken Loach zuzendariaren pelikula honetan garbitzaile enpresa bateko langileen, emakumeak guztiak, gora beherak dira nagusi. Emakume hauek bizi baldintza hobek lortzeko greba du ardatz filmak eta klase borroka erakusten da bertan.

### 78. eta 79. urteetan jaiotakoaren afaria

**IBARRA** » Ibartar talde batek 1978. eta 1979. urteetan Ibaran jaiotakoaren afaria ari da antolatzen. Afaria abenduaren 20an izango da herriko Eluxka jatetxeko sagardotegian eta izena ernateko epea abenduaren 13an itxiko dute. Interea dutenek edota informazio gehiago behar dutenek 688 637 113 telefonora dei dezakete. Era berean, aipatu urteetan jaiotakoei parte hartzeko deia egiten diete.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**E Elkarrizketa**

**NEKANE JURADO** » Ekonomilaria, psikologo klinikoa eta Elkartzen-eko kidea

# «Kapitalismoa gorputz batean minbizia bezala ikusten dut»

**Ekonomia** » Herenegun bigarren aldiz Bilbon, lehenengoan aretoa bete egin baitzen; duela bi aste Iruñean eta gaur 20:00etan Kultur Etxean.

**ASIER IMAZ**

Ezker abertzaleak antolatutako hitzaldietan bigarren, Nekane Juradok (Pont de Suert, Herrialde Katalanak, 1958) eskainiko du gaur 20:00etan Tolosako Kultur Etxean. Gaia: *Nor geldituko da nire diruarekin? Kapitalismoaren gezurra.*

**Nondik aztertuko duzu kapitalismoaren krisia?**

Lehenik, kapitalismoaren krisia ondo ulertzeko ikuspuntu historikoa aztertuko dut. Gaur egun, 29ko krisian bezala, kapital akumulazio izugarria dago. Errentagarria izaten jarraitzeko, kapital hori espekulaziora eta ekonomia erreala deiturikora bideratu beharra dago. Eurek krisi finantzieroa deitzen diote, Washington-en elkartutako G20koek, baina gertatzen ari dena, ongizate estatuaren aurkako beste eraso bortitza bat da; zergak gutxituz, sektore pribatuari laguntza gehiago emanaz... ondorioz, nire lehen helburua eraso hauek zergatik ematen diren ongi azaltzea izango da. Horretarako ongizate estatua nola sortu zen planteatuko dut, nolasuntsitu nahi duten ikusteko.

**Gaurko hitzaldia ez galtzeko, utz gaitzazu gose piska batekin.**

Gainetik esanda, jende gutxiak daki ongizate estatua 1929ko krisiaren ondorio dela. Krisi honek II. Mundu Gerra bideratu zuen. Gertate horretan, herriek ez zuten alemaniarrak edo faszistak euren lurretatik bidaltzeko bakarrik borrokatu, askatasun sozialagatik ere borrokatu zuten. Erresistentzia, Frantzia, Italia, Belgika,... komunistet egin zuten. Ondorioz, noiz amaitzen da gerra? II. Mundu Gerra ez da amaitzen alemaniarrek bidaltzean. Gizartearen benetako akordio batetara iristen da; Langileen Internazional handiarekin negoziatzen da eta ongizate estatua deiturikoren oinarriak planteatu dira. Estatuaren arteko adostasun bat egon zen. Hauek langabeziarekin amaitzea onartzen zuten, kaleratzeak debekatzeko zuten araudiarekin batera. Estatuak bere gain hartzen zuen gizarte ba-

bes guztia, demokrazia parte-hartzailea deiturikoa garatu zen.

**Gu berriz jokoz kanpo.**

Hori dena ez genuen hemen ezagutu, diktadura batean aurkitzen bainekin. Baina horrek funtzionatu zuen eta ongizate estatua lortu zen. Europan 70.ean petroleoaren krisia iritsi zen arte. Puntu honetan, kapitala irabaziak galtzen hasi zen, petroleoa igo egin zelako. Orduan, 1945. urtean eman zutena kentzen hasi ziren. 80. hamarkadan kontu handiz aritu ziren, langile klasea hor zegoela pentsatuz. Baina zein izan zen sorpresa? Kapitalak aurrera egiten zuen bitartean, langile konzientziak atzera egin zuela; sindikalismoak erantzuteko gaitasun guztia galdu zuela. Ondorioz, 80. hamarkadan birmoldaketak ikusi genituen, Berlin go harresiaren erorketa eta URSSen desagertzea 91ko abuztuan. Gauzak nola diren, urte horretako abenduan, Europako estatu buruek Maastricht-eko tratatua egiteko elkartu ziren. Baina hau dena eta lortutako guztia kapitalak nola kendu zuen, hitzaldian.

**Ezkeriar batzuk kapitalismoaren azken egunetan gaudela diote, eskuindar batzuk berriz kapitalismoa berfundatu behar dela.**

Eskuinak hori planteatzen du. Baina ez dute berfundatuko, makilatu baizik. Gizarte lasaitzeko, aldatu egingo dutela esango digute, hermendik aurrera ez dela erasokorra eta zapaltzailea izango kapitalismoa. Ezkeriar batzuk hil dela esaten dute baina ez da hilko ez baldin badugu hiltzen. Kapitalismoak lehen krisi handia 1875. urtean eduki zuen. Une horretan jaio ziren sindikatuak, Marx eta Engels-en teoriak indarra hartu zuten, 1917ko iraultza errusiarrak gauzatu, ordudandik ari dira kapitalismoa hiltzeko dagoela esaten. Memoria historikoa eduki behar dugu.

**«Kapitalismoa ez da amaituko berarekin ez baldin badugu amaitzen». Baina zergatik amaitu behar dugu kapitalismoarekin?**

Kapitalismoa elementu harrapakaria da: begira nola daukagun ingurugiroa. Kapitalismoak iraba-



LANDER GARRÓ

ziak metatu behar ditu. Enpresari bat baldin banaiz, egunetik egunera gehiago irabazi behar dut. Eta horretarako hiru bide ditut: esku lanagutxiago ordainduz, ondorioz langile klasea geroz eta txiroagoa da eta, hori edonork ikusten du. Bigarrenik, oinarriko materialak merkeago erosituz; kafea erabiltzen baldin badut, kafe-saltzaileak hondoratuz. Petroleoa erabiltzen badut eta ukatzen baldin badidate, herrialde bat inbadituz. Horretaz gain natura suntsitu behar dut, pozoiitu eta txikitu pezetarik ordaindu gabe gainera.

**Gaitz bat bezala ikusten duzu.**

Nik kapitalismoa minbizia gorputz osasuntsu batean bezala ikusten dut. Bere buruan bakarrik pentsatuz zabalten da, inguruko organismo osasuntsu guztia txikituz. Minbiziaren helburua hazi, hazi eta hazitzea da. Berdin dio aurrean edo inguruan zer duen, dena txikitzen du. Baina muinera iristen denean, bizi den gorputza suntsitzen du.

**Duela 20 urte adibidez, alternatiba bat bazegoen. Gaur egun ordea ba al dago beste aukerarik?**

Gaur egun ere badaude erreferentziak. Boliviako sozialismoaren adibidea aipatuko dizut, alde batek ikertzen ari naizelako eta besteak gauza harrigarriak dituela iruditzen zaidalako. Hala eta guztiz ere erreferentzia bat edukitzea ez da beste herrialde batean, Venezuelan, Chinan, Cuban edo Bolivian egiten ari direna kopiatzea. Herrialde bakoitzak tradizio bat dauka, historia bat, erlazio bat bere elementu ekonomikoekin; izan ere, herrialde guztiak eduki dute ekonomia kapitalismoaren aurretik. Ekonomiak herrialdeari garatzen lagundu behar dio, eta ez alderantziz. Nik euskal sozialismo identitarioa deitzen diot.

**Azaldu hori mesedez.**

Herri honek idiosinkrazia bat dauka, identitate bat. Bere elkartasun zeinuk ditu ingurugiroarekin, etorkizuneko belaunaldiarekin eta munduko beste herriekin. Berde-

finitu egin behar dugu, hau da, ekonomikoki herri bezala zein behar ditugu? Eta ondoren behar horiek ez dakit kotxeak edo letxugak behar ditugun baina oinarria hori litzateke: benetako behar sozialak berdefinitu. Ondoren, aberastasuna banatu beharko dugu, krisia aberastasunaren pilaketa delako. Horretarako hiru bide daude: lehenik, soldatak orekatuago banatu behar dira. Ezinezkoa da lantegi batean lan bera egiteagatik langile batek besteak baino hiru aldiz gehiago irabaztea. Puntu honetan sindikatuen lana oso garrantzitsua da. Bigarrenik, lana dutenen eta ez dutenen artean aberastasuna banatu egin behar da; oinarriko errenta eta langabezi duin bat, pentsioak,... eta hori zergak modu egokian antolatuta egin daiteke. Demokrazia parte-hartzailea ere aipatuko nuke beste adar batean. Ez da nahikoa lau urteko behin bozka ematearekin. Aurrekontuetan, politikariek hartu duten diru guztia zertan gastatuko duten erabakitzen dute. Ez da berdina bankuari ematen gastatzea, Euskal Herria txikitzen duen AHTn gastatzea edo gizarte-gastuetara bideratzea. Gaur, hemen eta orain euskal sozialismo identitarioaren oinarriak jartzen hasteko aukera daukagu. Gauza hauek euskaldunon esku aurkitzen dira eta ez Washingtonen biltzen diren esku.

**Nazio gatazkak ez al du ekonomia bigarren mailan utzi?**

Independentzia aldarrikapen historiko bat izatetik behar ekonomiko bat izatera pasatu zen. Gure gizaratek biziraun dezan, beharrezkoa dugu independentzia. Alde batetik identitate zeinuak daude, nazio borrokan murgiltzeko, baina borroka soziala ezin da egin benetako politika ekonomiko instrumenturik gabe. Lana banatzeko instrumentuak, errentak banatzekoak, nazioarte mailan komertzio justu baten aldeko akordioak,... Hauek denak estatuaren esku dauden instrumentuak dira. Inongo autonomia edo transferentziak hori ez dute aldatzen. Elementu klabeak estatuaren esku daude. Ondorioz, benetan beharrezkoa da subirotasuna. Hala eta guztiz ere, ezin dugu gure burua engainatu, subirotasunak askatasun soziala ez du bermatzen; alderdi eskuindar sutsuek zuzendua baldin bada, subirotasun kapitalista izango baita.

**Nekane Jurado, ekonomilaria eta psikologo klinikoa.**

Psikologia ikasi nuen eta klinikokan espezializatu nintzen. Ekonomia eta bertan hartzen diren erabakiak ulertzeko asko lagundu dit; baloreak nola manipulatu dituzten ikusteko, etabar. Une honetan klase konzientzia galtzen ari gara. Zergatik? Zikoizkeria handiz manipulatu gaituztelako. Klase zuzentzaileek euren baloreak sartu nahi dizkigute eta kapitalismoa defendatu behar dugula ematen du. Gazteei askotan galdetzen diet langile klasearen inguruan hitz egiten dugunean: Gu giza kapitala edo esku lana izango ez bagina merkatuan, hau da, inork ez baldin bagaitu erosten, ez gara ezer. Hori da langile klasea. Baina manipulazio bidez, gu ere kapitalistak garela sinestarazi nahi digute.

**Mendebaldeko gizon emakumeak gaixo al daude?**

Bai. Eta buruko gaixotasunez gainera. Buruko gaixotasunak XXI. mendeko gaixotasunak izango dira. Benetan garenaren eta izan beharko genuenaren arteko haustura handia ematen ari delako. Zer garen sinestarazi nahi digute, ez garen gauza bat sartzen digute, txikitu egiten gaituzte.

**OKINDEGI/KAFETEGIEN SEKTOREAN LIDERRA DEN ENPRESAK**  
**NEGOZIO BERRITZAILA ETA KONTRASTATUAREKIN LEITZAKO HEDAPENERAKO**  
**BEREKO NEGOZIOA KUDEATU NAHI DUTEN PERTSONEKIN**  
**HARREMANETAN JARRI NAHI DU ERRENTAGARRITASUNA ZIURTATURIK**  
**Harremanetarako telefonoa: 607219256 / 607 575018**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraledea:** 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Ibarra.** Uzturpe Ikastolaren urteko asanblada ekitaldi aretoan 19:00etan (20:00etan 2. deialdia).

■ **Alegia.** Bertso-poteoa 19:30ean Unai Muñoa eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariekin eta Eider Zubillaga eta Maider Zabala trikitilariekin; 21:00etan bertso-afaria Intxurre elkartearen Txartelak Kultur Etxean salgai 17 euroren truke, gaur da azken eguna.

■ **Tolosa.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluak, abenduaren 13an, BECen antolatutako duen ekitaldira autobusak antolatutako Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiko egoitzan 11 eurotan (bazkideek, 8 euro).

### Hitzaldia

■ **Tolosa.** Nekane Juradok *Nor gelditzen da nire diruarekin? Kapitalismoaren gezurra* hitzaldia emango du udal batzar aretoan 20:00etan.

### Erakusketa

■ **Anoeta.** Egutegirako argazki lehiaketako lanen erakusketa Abraham Olano kiroldogian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.



## 1.200 lagunek eman dute izena jadanik

**TOLOSA** ● Abenduaren 5 eta 8a bitartean ospatuko den Tolosako Txuletoiaen Jairako dagoeneko 1.200 erreserbatik gora egin dituzte. Zerkausiaz gain, herriko beste sei jatetxe eta sagardotegik ere bat egin dute ekimen honekin, eta hauek ere erretregiko menu bera eta 40 euroko prezio berean eskainiko dute: Astelena (943650996), Beti Alai (943673381), Botarri (943654688) eta Bidebide (943577553) jatetxeak eta Uzturre (943698072) eta Usabal (943674316) sagardotegiak. Bazkari eta afarietarako izen-ematea telefono honetan egin behar dira: 943 697 413; edo posta elektronikoz, helbide honetara mezua bidaliz: [tour@tolosaldea.net](mailto:tour@tolosaldea.net). EZEIZA

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzak 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburuaren inguruan antolatutako ekitaldi hauetara gonbidatzen zaituzte.

### AZAROAK 28, OSTIRALA

*Garraxi Ixila* antzezlan (Lasarteko Landaberri antzerki eskola). Xabier Lasaren Oroimenean *Lokartutako Ahotsa* liburuaren oinarritutako obra.  
**Ordua:** 22:00  
**Lekua:** Leidor Zinema

### ABENDUAK 1, ASTELEHENA

*1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldea eta Leitzaaldean* liburuaren aurkezpena, Mikel Errazkin Agirrezabala eta Joxemi Saizar Arostegiren eskutik. Ondoren lunch-a guztientzat.  
**Ordua:** 20:00  
**Lekua:** Tolosako Zerkausia

### ABENDUAK 2, ASTEARTEA

*Gerra Zibila Tolosaldean* hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkarte Mikel Errazkin Agirrezabala eta Jantxo Agirre Mauleonen eskutik.  
**Ordua:** 20:00  
**Lekua:** Tolosako Udaleko Pleno Aretoa

1936KO GERRAKO OROITZAPENAK  
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN